



BARREN

TEKNIKOM

Markel Bergararen agurra



STOCK FERIA

ELGOIBAR

MARTXOAK 7, LARUNBATA

10:00 ETATIK - 14:30 ERA

MAIALAKO PARKEAN

PARTE HARTZEKO ETA INFORMAZIO GERTUAGO ESKURATZEKO DEITU 945747501 ZENBAKIRA



Hastera goaz!

Prest gaude Euskaraldia entitateetan aurkezteko!



Badakigu zer egin nahi dugun.

Badakigu zer esan behar dugun.

Udalean

Ikastetxeetan

Elkarte eta gizarte mugimenduetan

Denda eta tabernetan

Enpresa eta industrietan





ANE ASTIAZARAN

Itzultzailea

Itzulpenetara itzultzea

itzulpenak irakurri beharrean liburu "originala" hautatzeko, batez ere idazleak gaztelaniaz idazten duenean. Azken urteetako hautu kontzientea izan da euskarara itzultako liburuak irakurtzearena, eta plazera da kontzienteki kalitatezko nobelen, saiakeren eta poemak kalitatezko itzulpenak irakurtzea.

Ziur batek baino gehiagok irizten duela itzulpen-prozesuak testu "originalarekiko" zerbait galtzen duela, baina kosta egiten da ulertzea zerbait galtzen den modu berean irabazi ere egiten dela. Kosta egiten zaigu itzulpen-prozesua bere baitan sorkuntza-prozesu bat dela ulertzea, eta are gehiago hori baloratzea. Itzulpena izatez ez da negatiboa; aitzitik, geuk eman ohi diogu zentzu negatibo hori. Horregatik, garrantzitsua da irakurle gisa kontziente izatea itzulpen bat irakurtzen ari zarela, eta jatorrizko testuarekin

alderatuz desberdina izango dela, itzultzea ere zerbait berria sortzea delako. Artea da publiko, helburu eta testuinguru zehatz bat buruan izanik idatzi den testu bat beste publiko, helburu eta testuinguru batera ekartzeko gaitasuna izatea, baita hori guztia euskarara modu koherente, kohesionatu, aberats, egoki eta zuzen batean ekartzea ere. Baloratzen ez den artea.

Zergatik ez dugu, beraz, jatorrizko testua eta itzulpena "originala" eta "kopia" direlako ideia horrekin hausten? Bi prozesuak sorkuntza-prozesu diren partetik hala ulertzea proposatzen dut. Eta ez dut uste hitz hauekin "originalak" irakurtzea nahiago duten horiek euskarazko itzulpenak irakurtzeko konbentzitu ditudanik, nahikoa dut baten batek hierarkia literario hori zalantzan jarri eta isildutako "kopia" horiei aukera bat ematen badie.

Aurreiritziz beteriko gizartea da geurea, eta argi dago aurreiritzi horiek aldatzea ez dela batere erraza. Are konplikatua da aurreiritzi horiek aurreiritzi direla konturatzea, askotan geuk berariaz eraiki ditugun usteak direla sinesten baitugu. Horietako bat da gaur azaldu nahi dudana, orokorrean oso zabaldua baitago liburu baten itzulpena irakurri baino "originala" lehenestearen ideia.

Onartu beharra daukat nik neuk ere joera neukala/daukadala euskarazko

"Artea da publiko, helburu eta testuinguru zehatz bat buruan izanik idatzi den testu bat beste publiko, helburu eta testuinguru batera ekartzeko gaitasuna izatea"



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euskarazko Argitaratzailea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR
943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako enantzikizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Eurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaiola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enertzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► OSASUNA, EKONOMIA ETA KLIMAGATIK, EZ ERRE ETORKIZUNA!

Zaldibarren gertatutako hondamendia ikusi dugu. Gutxi batzuen negozioagatik milaka herritarren osasuna jarri dute arriskuan krisia sortu denean ezkutatu egin diren agintari politikoei. Zaldibarkoak erakutsi digu zein den logika: noizbait Zubietako erraustegian halako desastre bat gertatzen bada, agintariek zer esango digute, enpresaren errua dela? Txinako Urbaserri eskatzeko kontuak? Datuak ezkutatzen ibili dira eta berdin izango zaie ia 10 egunez herritarrak kutsatzea? Zabortejiarena zer da, erabili-botanahasi... eta estali? Hori ez dator bat klima larrialdiarekin. Nik ekonomia zirkularra aldarrikatzen dut eta hor erraustegiak eta Zaldibarkoaren moduko zabortejiak ez dute lekurik.

Frogatua dago alternatibak badaudela eta Gipuzkoako herri askotan egin dira hobekuntzak. Tamalez oraindik badira oso kezagarriak diren egoerak eta herriak: Donostia, Irun, Lasarte-Oria, Hondarribia eta Elgoibar oso atzera dabilta, ez dute urratsik eman gaikako bilketan. Erraustegiaren beharra herriotan jasotzen den zabor nahasiarekin justifikatzen dute. Ez du balio esateak hiri handietan zaila dela bilketa sistema eraginkor bat jartzea. Adibide asko ditugu Gipuzkoan bertan, Donostiako auzoak adinakoak diren herrietan, atez ateko sistema bezala, beste era bateko sistema derrigorrezkoak jarrita, emaitza oso onak ematen ari direnak (Katalunia eta Italia ere adibide garbiak dira).

Guzti hau salatuzko, otsailaren 29rako (larunbata) Larreko Mahaiak (CCOO, LAB, STEILAS eta EHNE sindikatuak, ikasleen sindikatuak, Greenpeace eta Eguzki talde ekologistak, Ernai gazte erakundea, Erraustegiaren Aurkako Mugimendua, Extinction Rebellion, GuraSOS) manifestaziora deitu du, *Osasuna, ekonomia eta klimagatik, ez erre etorkizuna!* lemapean. Donostian egingo da eta 17:00etan abiatuko da Easo plazatik. Animatu zaitzete; ez geratu etxean!

A.I.Z.

► ESKERRIK ASKO

Idatzi honen bidez, eskerrak eman nahi dizkiegu Udalarri, Musika Eskolari, Iturri eta Jai Alai tabernei eta Esnaola anaiei, eta modu berezian kalejiran parte hartu zuten guraso guztiei, 2020ko otsailaren 21ean ikastolak antolatu zuen inauteri egunerako emandako laguntzagatik.

Arte Hezkuntzako irakasleak

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENEk edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaz:

1. Eskutitz guztiek identifikatuta egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztekeraz datorren eskutitzik argitaratuko.

BERRIA NUEVO
abiato 2.0

Autobideetara zein aparkalekuekotasun hesiak irekitzen ditu.

Bertsio eguneratua eta potentziagat.

Eguneroko deskontu-sistemarekin jartzen da.

Gero eta autobide eta aparkaleku gehiagorik.

Orain Frantzia osan ere bai.

GOGOAN IZAN abiatu 2.0 BERRIAK ESKAINTZEN DIZUN GUZTIA!

BIDEGIK teleordaintza-gailuaren berria den bertsio hobetu bat atera du gipuzkoar guztientzat.

Prestazio berriak, erabilera-eremu handiagoa, deskontu-sistema bera...

Abiatu gailuaren erabilzailea izan ala ez, dagoeneko **abiato.bidegi.eus**-en eska dezakezu gailu berria.

Eskatu!

BIDEGI

Informazio gehiago: info@bidegi.eus | 943 105 106
GI-20 - KP / PK 14,800 - Arizeta-Usurbil

Elgoibarko emakume kirolariei buruzko erakusketak zabalduko du gaur Martxoaren 8aren harira antolatutako egitaraua



laz, Martxoaren 8an, Elgoibarren egin zen elkarretartzeko argazkia.

Elgoibarko emakume kirolarien gaineko erakusketarekin zabalduko dute gaur Elgoibarren Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira Berdintasun Sailak eta herriko beste hainbat eragilek elkarlanean antolatutako egitaraua. *Aupa neskak* jarri diote izenburua erakusketari, eta gaur, 18:30ean, zabalduko dute, baina martxoaren 14a arteko tarte egongo da bisitatzeko. Era berean, eta gai honi lotuta, martxoaren 4rako, asteazkena, mahai-ingurua ere iragarri dute. *Lehia bai ala ez?* izenburupean jardungo dira Nerea Sasiain, Pilar Arriola, June Loidi, Amaia Loiola, Arrate Zubia eta Ane Zabaleta kirolariak, Ainara Argoitia BARRENEko kazetariak gidatuta (Aretoko lehenengo lerroa gurpildun aulkia erabiltzen dituztenentzat gordeko dutela jakinarazi dute Udaletik). Mahai-ingurua Kultur Etxeko erakusketa gelan izango da eta 18:30ean hasiko dute.

Era berean, Haize-errota moreak egiteko tailerra ere antolatu dute Ludotekan martxoaren 2tik 6rako arratsaldeetarako eta Gaztelekuan, berriz, emakumeen egunerako murala, kamisetak eta poltsak egingo dituzte martxoaren 4tik 8ra arteko arratsaldeetan.

Martxoaren 5erako, berriz, ipuin kontalaria ekarriko dute Goizon Garate Udal Liburutegira. Umeentzako saioa izango da, 17:00etan hasita, eta *Amonaren istorioak*. *Amelie* izango du izenburutzat. Egun berean, iluntzean, *Cholitas* filma emango dute Herriko Antzokian, 21:30ean. Jaime Murciegok eta Pablo Iraburuk zuzendutako filma da, eta Boliviako bost emakume indigenak Aconcagua mendira egindako espedizioaz ari da. Gona tradizionalak jantzita eskalatzen dute emakumeok eta ahalduntzeko bide gisa planteatzen dute espedizioa. Mendan libre, zoriontsu eta bizirik sentitzen dira, eta bost emakumeon abentura honek emakume izaera inspiratzailea erakutsiko dio munduari, bai eta tradizioa zaintzeko eta ama lurrarekin harremanetan jartzeko

bidea ere. Martxoaren 6 eta 7rako, berriz, autodefentsa ikastaroa antolatu dute Olazaiga kiroldegian. Arratsalde izango da bari-kuko saioa, 18:00etatik 20:00etara, eta goizez, hilaren 7koa, 9:30etik 12:30era. Hilaren 7an, zapatuan, Sustrai akordeoi taldearen kontzertua ere izango da Kultur Etxeko sotoan, 12:30ean, eta ondoren, 14:45ean, emakumeentzako bazkaria eta dantaldia izango dira Sigma jatetxean (Informazio gehiagorako jo Pirtxintxura edo idatzi haizeataldea@gmail.com posta elektronikora). Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, martxa morea antolatu dute Elgoibarren. 13:30ean abiatuko da Kalegoen plazatik. 14:00etan, elkarretaratzea egingo dute Kalegoen plazan eta Uluka Batukadak eta Biraka dantza taldeak parte hartuko dute elkarretaratzean. Biraka dantza taldekoek, gainera, koreografia ere prestatu dute domekarako eta Elgoibarko Udalaren youtubeko kanalean zintzilikatu dute nahi duenak ikas dezan.

Ahalduntze tailerra, Mendaron

Nire zirrarak paperean eta oihalean murriztuz tailerra antolatu du Mendaroko Udalak, Martxoaren 8aren harira. Bost eguneko ikastaroa izango da, goizez, 9:15etik 12:30era. Martxoaren 2, 9, 16, 23 eta 30 egunetan egingo da, eta gehienez hamabi lagunentzako lekua egongo da. Ikastaroan izena emateko 943 033 282 telefono zenbakira deitu behar da edo kultura@mendaro.eus posta elektronikora idatzi. Ikastaroan kontu hauek landu nahi dituzte, besteak beste: sormenaren bidez ahalduntzea bultzatu, autoestimua, auto-ezagutza eta pentsamendu positiboa hobetu, auto-ezagutzaren bidez beldurrak landu eta emozioak adieraztea eta kanalizatzea.

Artzantza izango da bihar egingo den hileko azken zapatuko azokako gaia



Osailak bihar du azkena, zapatuarekin, eta horrenbestez, azoka eguna izango da Elgoibarren. Ohi duten legez, Elgoibarko hainbat baserriarrek eta ekoizleek saltokiak jarriko dituzte Kalebarren plazan (9:00etatik 14:00etara) eta eguerdirako gaztetxoentzako tailerra ere antolatu du DebemeneK Kalebarren plazan. Artzantza izango da biharko gaia, eta herriko baserrietako ardi-esnearekin gatzatua egiten ikasiko dute neska-mutilek 12:00etatik 14:00etarako tartean. Era berean, ardi eta ahuntz gazta dastaketa ere egingo dute. Txosna, berriz, Atabal Elkarteko arduraren izango da bihar, eta herriko baserrietako eta harategietako produktuekin egindako pintxoak salduko dituzte 11:00etatik aurrera. Eguerditik aurrera, berriz, ganadu erakusketa egongo da, Aita Agirre plazan.

‘Una sexualidad jubilosa’ hitzaldia emango du Maite Higuero sexologoak martitzenean Jubilatuen Biltokian



Elgoibarko Udalak antolatuta, *Una sexualidad jubilosa* hitzaldia emango du Mahibar Sexologiako Maite Higuero Barandalla sexologoak martitzenean, Jubilatuen Biltokian, 16:30ean hasita. Adinak sexualitatea bizitzeko moduan nola eragiten duen aztertuko dute eta gizon-emakumeen sexualitatearen kontzeptuak landuko dituzte adinekoekin. Era berean, euren bizipenak kontatu eta dituzten zalantzak argitzeko bidea ere emango diete hitzaldira batzen direnei.

Zabaldu da Errigoraren produktuak eskatzeko epea

Atzo, eguenarekin, ekin zion Errigorak *Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura* kanpainari. Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina, kontserba-sortak, arroza eta pasta eskainiko ditu, euskaraz etiketatuta eta ekoizleek saltzen duten prezioan, eta batzen duten diruaren parte bat Nafarroa hegoaldeko euskalgintzarentzat izango da, beti bezala. Martxoaren 12ra arteko epea izango da eskaerak egiteko, Errigoraren webgunearen bidez: www.errigora.eus. Kanpaina honetako eskaintzaren barruan honako produktu hauek egongo dira aukeran: oliba-olio birjina estra, pikillo piperrak, zainzuri zuriak, orburuak, barazki-menes-tra, tomate frijitua, arroza, potxak, barazki-kremak eta pasta.

Kale kantarien kantaldia bihar, San Lazaro egoitzan

Elgoibarko Kale Kantariet kantaldia emango dute bihar, zapatua, San Lazaro egoitzan, 10:30etik aurrera. Jakinarazi dute aurten ez dutela bazkaririk egingo emanaldiaren ostean, eta talde-bazkaria martxoan egingo dutela, hileko azken zapatuko ferriako egunean.

Odol ateratzeak egingo dituzte gaur Elgoibarren

Odol Emaileen Elkartetik dei egin diete elgoibartarrei gaur odola ematera. Arratsaldean egingo dituzte odol ateratzeak, ambulatorio ondoko lekoean. Nahi duenak aurrez ordua hartzeko aukera ere badu, whatsapp bidez. Horretarako telefono zenbaki bat eman dute: 665 728 662. Hurrengo odol ateratzeak martxoaren 20an izango dira Elgoibarren.

▶ **MARKEL BERGARA**

FUTBOLARI OHIA

Markel Bergarak (Elgoibar, 1986) futbola laga du, belauneko lesio batek behartuta. 12 urte zituela hasi zen Realean jokatzeko, eta 33 urterekin hartu du erretiroa. Ibilbide horretan zehar Realean egin ditu urte gehien, hamar denboraldi hain zuzen ere, baina ezagutu ditu baita ere Eibar eta Vecindario, eta azken lau urteetan Getafen jokatu du. Lesioek markatutako ibilbidea izan du, eta azkena ezin izan du gaititu. Isilik, zarata handiegirik atera gabe utzi du futbol profesionala, bere estiloan. Mintxetan batu gara berarekin, ume zela ezagutu zuen futbol zelaian eta luze berba egin dugu futbolaz, bere oroitzapenez eta etorkizunaz. Jator, xume eta uneoro irribarrea ahoan duela kontatu dizkigu xehetasun guztiak.

- AINHOA ANDONEGI -



“Realean ikasi dut futbolaz dakidan guztia; han egin nintzen futbolari”

◆ Denboraldia amaitu aurretik utzi duzu futbola. Zein izan da horren arrazoia?

Azken bi urteetan lesio asko izan ditut, batez ere belaunean, eta azkenaldian, gainera, min handia daukat. Meniskoko azken ebakuntzatik ez naiz ondo erreku-peratu eta saiatu naizen arren egoerari buelta ematen, konturatu naiz belaunak ez didala behar bezala erantzuten. Hori ikusita, eta sendagilearen gomendioei kasu eginez, denon artean hartu dugu futbola lagatzeko erabakia. Hasieran pena hartu nuen, baina dagoeneko onartu dut egoera, eta uste dut erabaki zuzena hartu dudala.

◆ Imanol Agirretxe ere antzeko egoeran

egon zen. Lagunak izanda, eman al dizu gomendiorik?

Lagun handiak gara, eta ikusi nuenean futbola laga behar izan zuela lesioen ondorioz, pena handia hartu nuen, eta begira, orain ni neu egoera berean nago. Baina bueno, hau ere futbolaren parte da, eta bai Imanolek eta baita nik ere lesioak futbol ibilbidearen amaiera aldera izan ditugu.

◆ Nola egin diozu aurre lesioek sortzen duten karga psikologiko eta fisikoari?

18 urterekin hasi nintzen profesionaltan, eta lesio asko izan ditut ibilbide horretan. Gorputzak muga asko jarri dizkit eta beti ibili izan naiz horren kontra pau-

soak ematen. Futbolak duen alderik gogorrena lesioena da. Inpotentzia handia sentitzen da, ezin zarelako entrenatu, ezin duzulako gainerako futbolariak egiten duten bizimodua egin, ezin diezulako taldekideei lagundu partidetan... Egoera gogorra da, baina ondo egin diot aurre egoerari, eta nire buruaz harro nago.

◆ Ezagutu dituzu Sanse, Eibar, Vecindario, Real eta Getafe. Nola laburbilduko zenuke zure ibilbidea?

Elgoibarren hasi nintzen futboleant, eta alebiretan joan nintzen Realera. Sansen bi urtez egon nintzen ondoren, eta klubari iruditu ziizaion gazteegia nintzela oraindik lehenengo mailan jokatzeko, eta bi urte

jokatu nituen Eibarren eta Vecindarion, utzita. Urte gogorak izan ziren niretzat: oso gaztea nintzen eta ez genituen emaitza oso onak lortu, baina asko ikasi nuen. Bi urte haien ondoren Realera itzultzeko aukera izan nuen, eta esan behar dut futbolaz dakidan guztia Realean ikasi dudala; han egin nintzen futbolari. Urte asko egin nituen Realean, eta benetan gustura. Azken urteak Getafen eman ditut, eta esan behar dut maila pertsonalean, familiarrean eta profesionalean ere oso pozik egon naizela.

♦ **2007an debutatu zenuen Realarekin Kopako partida batean. Nola gogoratu duzu estreinako aldi hura?**

Egia esan ez daukat egun hura oso gogoan. Kopako partida zen, bigarren mailan geunden, eta garai hartan Realeko giroa ere ez zen onena. Momentu zailak ziren. Politza izan zen Realean debutatzea, baina momentu politagoak izan ditut gero.

♦ **Lehenengo mailako Ligan 2010ean debutatu zenuen. Esan daiteke orduan bete zenuela zure ametsa?**

Baietz esango nuke. Realaren lekua beti egon da lehen mailan, eta mailaz igotze hura handia izan zen niretzat. Realeko guztiok askatasun moduko bat sentitu genuen itzulera harekin.

♦ **Hamar denboraldi egin zenituen Realean, eta ezagutu zenituen Liga, Kopa, Txapeldunen Liga eta Europa Liga. Zer eman dizu Realak?**

Asko eman dit, bai maila pertsonalean eta baita kirol alorrean ere. Oso gazte iritsi nintzen taldera, eta egia esan, Realean gauzak oso ondo egiten dira gaztetxoekin. Balore garrantzitsuak erakutsi dizkit Realak, taldekideekiko elkartasuna ere bai, eta bizipen eta poztasun asko eman dizkit. Pribilejiatu bat izan naiz, eta amesten nituen gauzak benetan bizitzeko aukera eman dit Realak.

♦ **Baloreak aipatu dituzula, sarritan zailtzan jarri izan dira kirolak transmititzen dituen baloreak. Zuri zein balore transmititu dizkizu futbolak?**

Gure gremioa aspektu horretan gutxietsita dagoela iruditzen zait. Niri ume-ume-

“Amesten nituen gauzak benetan bizitzeko aukera eman dit Realak”

tatik lankidetzat transmititu didate, talde-lana, denok bat eginda lorpen handiak eskuratu daitezkeela... Realean oso ondo lantzen dituzte bizitzarako beharrezkoak diren baloreak.

♦ **Realak eta Getafak joko oso desberdina dute. Zein estilotako futbola gustatzen zaizu zuri?**

Getafak joko oso zehatza dauka. Bertikalean jokatzen du asko, oso erasokorra da eta asko identifikatzen naiz joko horrekin. Realak gehiago jokatzen du, baina badauka baita ere bertikalitate hori. Realarena da niri gustatzen zaidan futbol jokoa adibide garbia.

♦ **Realak hitz dotoreak eskaini dizkizu futbola utzi duzunean. Zer daukazu esateko?**

Realak eman didan maitasun horrekin geratzen naiz. Momentu onak eta txarrak izan ditut, baina amaierara iristean horrelakoak entzutea polita da.

♦ **Hainbeste urte Realean egon ostean Getafera joatea gogorra egin zitzaitzun?**

Ikusten nuen Eusebioarekin [Sacristan] ez nuela jokatzen eta esan zidatenean

onena beste bide bat hartzea izango nuela, ez nuen trauma handiegirik sentitu. Une hartan Estatu Batuetan jarri nituen begiak. Esperientzia berri bat nahi nuen, bai kirolean eta baita familia alorrean ere, eta hango talde batera joatekotan egon nintzen. Azkenean fitxaketa hura ez zen gauzatu, eta Getafen amaitu nuen. Ez naiz damutzen hartutako erabakiaz. Klubean oso gustura sentitu naiz, taldekideekin ere primeran moldatu naiz eta Madrilen bizitzeko ere gustura egon gara. Esperientzia oso ona izan da.

♦ **Getafera joan berritan C.D. Elgoibar mendeurrena ospatzen ari zen eta Realak jokatu zuen Mintxetan. Gutxiatik ezin izan zenuen jokatu partida hura.**

Bai, partida ikustera joan nintzen Mintxetara eta bai, pentsatu nuen polita izango litzatekeela jokatu izana, baina bizitzan dena ezin izaten da egin.

♦ **Mintxetan hasi zinen futboleko C.D. Elgoibarren. Zein oroitzapen dituzu?**

Oso politak. Ikastolako jolasorduan jokatzea bezalakoa zen niretzat, baina tamaina handian eta benetako porteriekin. Realera joan nintzenean dena desberdina izan zen. Orduan ikasi nuen zer zen benetan futbola.

♦ **Umetan pilotan ere oso ondo moldatzen omen zinen. Kirolerako dohaiak umetatik izan dituzu?**

Bai, beti gustatu izan zait kirola eta ondo moldatu izan naiz. Ama azkoitiarra da, eta hango lehengusuekin asko joka-



“Realarena da niri gustatzen zaidan jokoaren adibide garbia”



tzen nuen pilotan, eta esango nuke ume-tan gehiago gustatzen zitzaidala pilotan egitea futbolean jokatzera baino.

♦ **Oso gazte iritsi zitzaizun Realaren deia, eta une horretan gurasoen papera ere oso garrantzitsua izango zen. Nola kudeatu zuten gurasoek egoera berri hura?**

Naturaltasun osoz hartu dute hau guztia nire gurasoek, eta beti esan didate momentuaz gozatzeko, inolako presiorik gabe. 12 urterekin eskatu zidaten bakarra izan zen ikasketak albo batera ez uztea, baina bestela, gozatzeko. Gaur egun ume asko joaten dira Realarekin jokatzera, eta horrek sekulako ilusioa egiten die, baina gutxi iristen dira futbolari profesional izatera. Nik zorte handia izan dut.

♦ **Noiz jabetu zinen futbolari profesional izateko aukera zenuela?**

Sansera iritsi nintzenean. Sansen goizez entrenatzen da, eta jende nagusiaren kontra jokatzeko duzu. Hor hasi nintzen pentsatzen agian iritsiko nintzela lehen taldera.

♦ **Zer eman eta zer kendu dizu futbolak?**

Kendu dizkidanak baino askoz gauza gehiago eman dizkit. Egia da gaztetan ordu asko kendu zizkidala, eta lagunekin ez nintzela nahi beste egoten, baina futbolak eman didan guztia kontuan hartuta, ez dit ezer kendu. Herrialde eta hiri pila bat ezagutu ditut, lagun asko egin ditut, futbol zelai desberdinetan jokatu dut eta horrek guztiak poztasun handia ematen dit.

♦ **Zertan aldatu da futbola zu hasi zinetik gaur arte?**

Gaur egun dena Internetera begira egiten da, dena mediatizatu da eta jokariak ere ia behartuta gaude sare sozialetan egotera. Nik ez dut ezer eduki,



baina oraingo jokalaria gazte guztiak dabilza sare sozialetan, zaleak ere hor daudelako.

♦ **Non irudikatzen duzu zure burua, futbolari izan ez bazina?**

Magisteritza ikasketak hasi nituen, baina egia esan ez dut nire burua irakasle paperean ikusten. Nire emazteak finantza munduan lan egiten du, banku pribatu ba-

tean, eta haren lana gustatzen zait.

♦ **Aurrerantzean zein dira zure asmoak?**

Uztailera arte Madrilén egongo gara, baina gero Donostiara itzuliko gara. Ikasten ari naiz finantza alorreko kurso bat eta entrenatzaile izateko ere bai. Ez dauzkut gauzak argi. Epe bat hartuko dut formatzeko eta gero erabakiko dut.

MOTZEAN

- **Jokalaria bat:** Juan Gomez. Umetatik gustatu izan zait.
- **Aurkari gogorrena:** Messi. Ikusi dudana eta ikusiko dudana onena izan da.
- **Taldekode bat:** Griezman, bere lorpenengatik.
- **Entrenatzaile bat:** Ez nuke bat aukeratuko, denek eman didate zerbait.
- **Aldagelako perrexila?** Getafeko Damian. Serio itxura ematen du, baina sekulako umorea du.
- **Futbol zelai bat:** Molinon. Gertukoa eta giro handikoa da.
- **Lider bat:** Aranburu, Prieto eta Molina. Zarata gutxirekin taldea ondo gidatzen duten kapitainak dira hirurak.
- **Lehen soldatarekin zer egin zenuen?** Aitak garaje bat erosi zuen Anoetan. Oraindik mantentzen dugu eta aitak han aparkatzen du partida egunetan.
- **Kirol bat:** Pilota.
- **Musika:** Izaro.

INAUTERIAK ARGAZKITAN

Bideo eta argazki gehiago: www.barren.eus

Elgoibar





Mendaro





Elgoibarko Herriko Antzokian 16.700 ikusle batu ziren iaz egin ziren emanaldietan



Elgoibarko Herriko Antzokian iaz egin ziren ikuskizun eszenikoetan eta musika bandaren kontzertuetan nahiz bestelako saio eta emanaldietan 16.715 lagun batu ziren guztira, 2018an baino 448 gutxiago (Datu honetan ez dituzte kontuan hartu herriko elkarteek zein ikastetxeek antolatu zituzten ekintzetara batutakoak). *Goazen 2019* antzezlanaren eta Kaxiporretaren Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren saioa izan ziren urteko ikuskizunik jendetsuenak eta 776 eta 742 ikusle batu zituzten hurrenez hurren. Filmerik ikusiena, berriz, *Joker* izan zen, 693 ikuslerekin eta umeentzako programatu zuten eskaintzaren barruan, *Dumbo* filmak batu zituen ikusle gehien: 344. Helduentzako film eskaintzaren barruan, *ai-pagarria da*, *era berean*, *Dantza* eta *Agur Etxebeste* euskarazko filmek izan zituzten ikusle kopuruak: 566 eta 463. Ikusle-kopuru apalagoak zenbatu zituzten antzerki emanaldietan. *Erlauntza* antzezlanaren izan zen ikusiena 290 ikuslerekin, eta *El Caserio* bigarren ikusiena, 237rekin. Musika Bandak bederatzita kontzertu eskaini zituen iaz Herriko Antzokian, eta guztira 2.005 ikus-entzule batu zituen.

Eguneko Zentroko erabiltzaileek ere parte hartu dute Elgoibar Ikastolako euskal inauterian



Eguneko Zentroaren eta herriko ikastetxeen arteko elkarlan egitasmoaren barruan, zentroko erabiltzaile batzuk gonbidatu zituzten Elgoibar Ikastolako euskal inauterian prestatzeko egin zuten entsegu orokorrera. Eguberrietan Herri Eskolara egin zuten bisita eta orain Elgoibar Ikastolako inauterian gertutik ezagutzeko aukera izan dute.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren 'Bizi dantza', gaur zortzi

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek *Bizi dantza* ikuskizuna ekarriko dute Elgoibarrera martxoaren 6an, gaur zortzi. Bi saio emango dituzte: 17:00etan bata, eta 19:00etan bestea, eta edizio hau iazko orduan oraindik bazeuden sarre-rak salgai. Sarrerak Kutxabanken plataformaren bidez eros daitezke aurrez, baina egunerako denak salduko ez balira, Herriko Antzokian bertan ere jarriko lituzkete saltzen gaur zortzi. Dantzari eskaintako ikuskizuna da *Bizi dantza*, eta dantzarako gonbita egingo dute. Pozak eta tristurak azaltzeko dantzatzen garaia gogorarazi dute pailazoek, barruak agintzen digunean dantzatzen garaia, baina baita gure kultura ospatu eta errituak berritzeko eta garen hori mugimenduan jartzeko ere.

Astelehenean hasiko da udaberriko oporraldirako izena emateko epea

Astelehenean, martxoaren 2an, zabalduko da Elgoibarren Atxutxiamai-kak eta Udal Ludotekak elkarlanean antolatu duten udaberriko oporraldirako izena emateko epea. 2 eta 12 urte bitarteko haurrentzat prestatu dute eskaintza eta martxoaren 15a izango da izena emateko azken eguna. Horretarako, hiru aukera jarri dituzte: Internet bidez, Elgoibarkoizarra.eus webgunean sartuta, edo aurrez aurre: Elgoibarko Izarraren bulegoan (Aita Agirre eraikineko hirugarren solairuan) edo ludotekan. Udalak dirulaguntzak ere banatuko ditu, eta eskaerak Elgoibar.eus bidez edota Udalaren Arreta Zerbitzuan egin beharko dira martxoaren 20a baino lehen.



Sonia Archelik urrezko domina irabazi du Badaiotz taldearekin Munduko Sokatira Txapelketan

Munduko Goma Gaineko Sokatira Txapelketa jokatu dute otsailaren 20tik otsailaren 23ra bitartean, Irlandan, Donegal konderriko Letterkenny hirian. Kluben arteko txapelketaren saioak eguen eta barikuan jokatu zituzten eta zapatuan eta domekan jokatu zituzten nazioen arteko kategoriak. Lehen bi egunetan Euskal Herriko hamar sokatira klubetako taldeak aritu ziren lehia munduko sokatira talde onenen aurka. Lehen jardunaldia historikoa izan zen euskal sokatirarentzat, euskaldunek podiumeko hiru koskak zapaldu baitzituzten emakumezkoen 540 kiloko kategorian, alegia, urrea, zilarra eta brontzea munduko txapelketan. Finalean Lesakako Beti Gaztek eta Gasteizko Badaiotzek neurtu zituzten indarrak. Euskadiko txapelketan nafarrak nagusitu ziren, baina munduko finalean badaiotzek bi tiralditan mendean hartu zuten Beti Gazte. Laukizko Gaztedik osatu zuen guztiz euskalduna izan den podiuma, Herbehereetako Monnickendam taldeari irabazita. Sonia Archeli mendaroarra izan zen Badaiotz taldearekin aritu zen zortzi tiralarietako bat. Hala, Irlandan lortutako urrezko dominarekin duela bi urte Txinan jokatu zuten munduko txapelketako emaitzak hobetu ditu. Tiralaria mendaroarrak zilarrezko bi domina irabazi zituen Badaiotz taldearekin 2018ko Munduko Sokatira Txapelketan. Badaiotzek bigarren urrezko domina bat ere irabazi zuen Irlandan, 500 kiloko kategorian, baina Archelik ez zuen lehia parte hartu, ordeko tiralarietako bat izan bazen ere. Nazioen arteko Munduko Txapelketan ere hartu du parte mendaroarrak. Izan ere, Euskal Herriko Goma Gaineko Sokatira Txapelketako talde txapelkunek ordezkatu dute Euskal Herria Irlandan, eta Badaiotz taldeko tiralariak ordezkatu zuten euskal selekzioa 500 kiloko kategorian. Talde arabarrak Herbehereetako selekzioa kanporatu zuten finalurrekoan, bi tiraldi gogor jokatu eta gero, baina finalean ezin izan zuten ezer egin Taiwango talde indartsuaren aurka, eta zilarrezko domina eskuratu zuten euskaldunek.



Ainhoa Lendinez Sahararen aldeko elkartasun maratoiko podiumean

Saharar errefuxiatuen aldeko elkartasun maratoia egin zuten otsailaren 22an. 25 herrialde ingurutik joandako 452 saltakarik hartu zuten parte lasterketan, eta emakumezkoen podiumera igotzea lortu zuen Ainhoa Lendinezek. Mendirik ez dagoen herrialde batera bidaitu duen estreinako aldia izan dela nabarmendu du elgoibartarrak, eta helburu solidario bategatik aldatu dituela mendiak basamortuagatik. Elgoibartik hara laguntza emateko deialdia egin zuen joan aurretik eta jateko, arropa eta botika ugari eraman dituzte Tinduferra (Aljeria), errefuxiatuentzako gunera.

“Etxera iristen zarenean kontatu hemen ikusi duzuna. Hori da guretzat laguntza onena”, esan digute. Ikusi dutena izugarria dela dio, “Marokok euren lurretik bota zituen sahararrak eta Aljeriak utzitako eremu honetan bizi dira, Hamadan. Hamadak esan nahi du basamortuko infernua. Hemen ez dago ezer, laguntza humanitariotik bizi dira errefuxiatu izaera aitortu zaielako. Adobez egindako etxeak dituzte, edateko ur txarra, guk botilatik edan behar izan dugu, eta jatekoa oso eskas. Maratoi honekin euren egoera munduan zabaltea da helburua eta zinez merezi du”, adierazi du. Otsailaren 27a Saharar Errepublikar Arabiar Demokratikoaren eguna da, eta aldarrikapen egun hori baliatzen dute maratoia egun horren bueltan antolatzeko. Sahararrek aterpe dituzten hiru wilaya (herrialde) batzen ditu maratoiak: Smara, Auserd eta Aaiun. Lasterketari dagokionez, gogorra bezain ederra izan zela dio. “Maratoi bat beti da gogorra, izan mendian edo asfalto gainean, baina basamortuko harea gainean 42 kilometro korrika egitea bereziki gogorra dela esan dezaket orain. Maratoiaren erdiraino sentsazio onekin ailegatu nintzen arren, hurrengo hamar kilometroak oso gogorrak egin zitzaizkidan, hondar-dunaz jositako ibilbide zatian harea mordo sartu baizitzaidan oinetakoetan, eta hareak urradurak eragin eta behatzak odoletan laga zitzaizkidan”. Beroa ere oztopo izan zen, 30 graduko beroa egiten baitzuen helmugara ailegatu zirenean. “Amets bat bete dut. Hunkigarria izan da bidean umez inguratuta joatea. Gogorrena, baina, emakumeek bizi duten egoera ikustea izan da. Ezkontzeko direnean gizenduarazi egiten dituzte hormonak hartuz eta umeak egiteko arazoak badituzte senarrek utzi egiten dituzte. Izugarria da 21. Mendean honelako errealitateak egotea munduan”, azaldu du.

Arkaitz Egañak irabazi du Elgoibarko Ehiza Xehe Txapelketa

Arabako Zanbrana herrian dagoen "El Castillo" ehiza barrutian jokatuz zuten aurreko domekan, otsailaren 23an, Elgoibarko Ehiza Xehe Txapelketa, eta Arkaitz Egañak irabazi zuen berriro ere La Union ehiza eta arrantza elkarteak antolatzen duen txapelketa. Birritan Espainiako txapelduna izan den ehiztari elgoibartarrak bolada onari eutsi zion eta hirugarren urtez jarraian irabazi zuen Elgoibarko txapelketa, hamar eper ehizatuta. David Conde sailkatu zen bigarren postuan, zortzi eper ehizatuta eta Luis Mari Terron igo zen podiumeko hirugarren koskara, bost eper ehizatuta. Beteranoen artean, Asier Arriola gailendu zen, lau eper eta galeper bat ehizatuta. Joxe Mari Egañak egin zuen bigarren, lau eperrekin. Aipaturiko ehiztari guztiak sailkatu dira irailean jokatuko den Debabarrenako Ehiza Xehe Txapelketa jokatzeko.



June Loidi Espainiako eskubaloi selekzioaren deialdian

Iliriako Pla de l'Arc kiroldegian egingo du kontzentrazioa emakumezkoen Espainiako eskubaloi selekzioak, martxoaren 8tik 16ra bitartean, hain justu, astebete geroago Tokioko Olinpiar Jokoetarako sailkatzeko txapelketa jokatuko den lekuan. Carlos Viver hautatzaileak hamasei jokalaria deitu ditu, eta horien artean da June Loidi, Zubileta Evolution Zuazo taldeko jokalaria elgoibartarra. 2021ean Espainian jokatuko den Munduko Eskubaloi Txapelketa jokatzeko aukera duten jokalaria gazteak deitu ditu lan saiora Viverrek, baina Preolimpikoa jokatzeko deitua izateko aukera ere izan dezakete jokalaririk.

Xake azkarreko Uztargi txapelketa, azken txanpan

Kilimon Xake Taldeak antolatu duen II. Uztargi Xake Azkarreko txapelketa une erabakigarriara ailegatu da, dagoeneko badituelako Ligako eta Kopako finalistak. Domekan, 12:30ean jokatuko dituzte finalak Uztargi tabernan. Liga txapelketan Eneko Egaña eta Juan Galindo ailegatu dira finalera.



Lehen edizioko irabazleak, Eneko Egañak, Jose Cambronero kanporatu zuen finalurrekoan. Lehen partida berdinduta bukatu zuten, eta Blitz erritmora jokatutako partida batekin desegin behar izan zuten berdinketa. Bigarren finalerdian Galindok nagusitasunez lortu zuen finalerako sailkapena, Nestor Teruelek partida hasieran egindako akatsari probetxua ateratu ostean. Kopako finalean Arrate Iriondok eta Garikoitz Huegunek jokatuko dute elkarren aurka.

Gustoko

GASTRONOMIA ETA ELIKADURA AZOKA

2020 / 03 / 6 - 8

kalitatea eta jatorria

Kolaboratzaile nagusiak

BILBO! BILBAO EXHIBITION CENTRE

www.gustoko.eu
www.bilbaoexhibitioncentre.com

EXPOSIBLE!

LANA.....
Eskaearak

26 urteko neska naiz, euskalduna eta arduratsua. Umeak zainduko nituzke arratsaldez.
 ☎ 636 193 759

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut
 ☎ 632 330 597

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. Ospitalean zaintza lanak egiteko ere prest.
 ☎ 643 856 598

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke, arratsaldez. Esperientziaduna. Ospitalean edo asteburuetan etxeko langile aritzeko prest.
 ☎ 688 959 575

Adinekoak zaintzeko prest nago. Gavez ere bai.
 ☎ 602 490 595 / 612 204 490

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Etxeko garbiketarik zein sukaldari lanak egiteko ere prest nago. Etxeko langile moduan aritzeko prest nago.
 ☎ 632 344 327

Orduka lan egiteko prest nago. Esperientzia handia daukat adinekoak eta umeak zaintzen eta baita garbiketara lanetan ere. ☎ 602 367 837

Garbiketara lanak egiteko eta pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Esperientzia.
 ☎ 631 114 125

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago. Esperientzia handia. Berehala hasteko moduan.
 ☎ 632 415 374

Adinekoak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago. Orduka.
 ☎ 655 094 780

Adinekoak zaintzeko eta garbiketarak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.
 ☎ 641 821 288

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka.
 ☎ 611 306 391

Eskaintzak

Heldu bati euskara irakasteko irakasle partikularra behar da.
 ☎ 650 601 301 (Victor)

GARAJEAK.....

Garaje itxia alokatzen dut Jausoro plazan, udaletxetik gertu. Oinezkoentzako sarbidea dauka.
 ☎ 672 422 237

BESTELAKOAK.....

Offiprix markako sei mahaiko mahai multzoa salgai. Oso egoera onean. 600 euro.
 ☎ 688 634 044



Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€ . Iragarkiarri erretratua jarritz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.


BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiarri erretratua jarritz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.


  <p>ROSA M^a PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazio-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Etxebizitza bat daukat eta logeletako batek patioa du irteera. Patioan konponketa batzuk egin behar dira eta jakin nahiko nuke nork ordaindu behar dituen gastuak.</p> <p>Patioek sortzen dituzte komunitateetan haserre gehien, izan daitezkeelako elementu pribatiboak, elementu komunak baina komunitateko etxejabe batek bakarrik edo batzuek bakarrik erabiltzekoak, edota izan daitezkeelako, baita ere, oso-osoan elementu komunak. Horregatik da garrantzitsua erregistro-agiriari erreparatzea, jakiteko zein den bere berezko izatea.</p> <p>Haserre gehien bigarren kasuan sortzen dira: patioa elementu komuna denean, baina bakarrik etxejabe batek edo etxejabe jakin batzuek erabil dezaketenean. Kasu horretan, arazoak sortzen dira erabiltzaile eskusiboen eskubidea mugatzeko orduan; izan ere, ez dira beti jabetzen patioak askatasunez erabiltzeko ahalmenik ez dutela eta bestelako eraikuntzak egiten dituzte maiz patioetan edo estali eta beren etxebizitzekin edo lokalekin lotzen dituzte, gauzak gordetzeko erabiltzeko. Gogoan izan jabeak patioaren gainean erabiltzeko eskubidea baino ez duela.</p> <p>ONDORIOA. Elementu komuna izanik, eraikuntzako mantentze-lanak eta konponketak jabeakideen komunitatearen kontura izango dira, betiere erabiltzaileak edo jabeak behar bezala erabiltzen baditu. Kasu horretan, deskribatutakoei dagozkien mantentze-lanak egin behar bada eta behar bezala erabiltzen bada, jabeakideen erkidegoaren kontura izango dira.</p> <p>ASESORIA GO/R AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	---



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



13 urte dagoeneko! Nagusitzen ari zara, **maitia**. Ez aldatu inoiz. Egun ona pasatu. Zorionak eta patxo potolo bat etxekoan, eta bereziki, Manexen partez.



Zorionak, **Duna**, zure 13. urtebetetzeari. Aita, amona Carmen eta aitona Joseren partez. Besarkada handi bat.



Asteazkenean 6 belarri trakada jaso zenituen, **Ekain!** Primeran pasatu genuen. Zorionak eta muxu handi bat familiako guztion partez.



Zorionak, **Maialen**, astelehenean 8 urte beteko dituzulako. Segi horren neska alaia eta jatorra izaten. Maite zaitugul Patxo handi bat familiakoan partez.



Zorionak, **Paul!** 9 urte dagoeneko! Domekan elkartuko gara ospatzeko. Muxu handi bat.

Erretratu bakarrekogurra: 4'50€.

Argazki bikoitza: 7€.

Hirukoitza: 9€.

Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrekogurra: 3'50€.

Argazki bikoitza: 6€.

Hirukoitza: 8€.

Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€



GREMIOEN GIDA

Aroztegiak
Erreformak
Igeltseritza
Pintura

Leihoak
Iturgintza
Elektrizitatea

Gidan agertzearen onurak!

21€
hilean

21 €ren truke, hilerio, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu **BARREN** astekarian!

12
aldiz urtean

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleio ikusia.

4.885
de astero

4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron **DOAN**.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

943 744 112

Alta Agine Kulturagunea, 3. J.3. esk
20870 ELGOIBAR



barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

COMBI BOSCH KGN36VI4A



799 €

- Led argiztapena
- Vitafresh 0° kutxa
- MultiAirflow
- A+++ energia-mota
- No Frost
- 186 cm-ko altuera
- Inox-a, aztamen aurkakoa



MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dandako prezioak. Produktuak agortu arte.

28 BARIKUA

18:00 Odol ateratzeak, Elgoibarren. 15:00etatik aurrera hartu daiteke txanda 665 728 662 telefonora deituta.

29 ZAPATUA

Azken zapatuko feria.

9:00 Baserriko produktuen salmenta, Kalebarren plazan.

10:30 Kale Kantariak. San Lazaro egoitzan.

11:00 Danborradako Atabal elkar-teak txosna irekiko du.

12:00 Gatzatu tailerra haur eta gaztetxoentzat. Kalebarren plazan.

Eguerditik aurrera, ganadu erakusketa. Aita Agirre plazan.

1 DOMEKA

10:00 Elgoibarko Hiria txirrindulari saria. Jubenil mailako lasterketa. Lagun Taldeak antolatuta. Mintxetan hasiko da.

11:30 Meza nagusia. Aingeru Guardako jaien barruan.

Ondoren, bertsolariak: Ane Peñagarikano eta Aitor Urbieta. Trikitilariak: Igor Rey eta Maite Olazabal.

Herri kirolak: aizkoran, Aratz Muger-tza eta Luis Txapartegi; harri jasotzen eta ingudean, Karmele Gisasola.

16:30 Zinea: 'Benji'. Mendaroko San Agustin kulturgunean.

5 EGUENA

19:00 Elgoibarko Isiltasun Eskola-koen meditazio topaketa. Kultur Etxeko sotoan.

6 BARIKUA

17:00 / 19:00 Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen emanaldia. 'Bizi dantza'. Herriko Antzokian.

MARTXOAK 8

28 BARIKUA

18:30 Elgoibarko emakume eta neska kirolarien argazki erakusketa: 'Aupa neskak'. Martxoaren 14ra arte egongo da ikusgai, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

2 ASTELEHENA

Arratsaldean, eskulanak, Ludoteketan. Haize errota moreak. Hilaren 6ra arteko arratsaldeetan egingo dituzte.

3 MARTITZENA

16:30 Hitzaldia: 'Una sexualidad jubilosa'. Hizlaria: Maite Higuero. Jubilatuen Biltokian.

4 EGUAZTENA

18:30 Mahaingurua: 'Lehia bai edo ez?'. Emakume kirolariekin berbetan. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

Arratsaldean, eskulanak. Gaztelekuan. Kamiseta, poltsa eta emakumeen egunerako murala.

5 EGUENA

17:00 Ipuin kontalaria: 'Amonaren istorioak, Amelie'. Gotzon Garate Udal Liburutegian. Umeentzat.

21:30 Zinea: 'Cholitas'. Ongarrirekin elkarlanean. Herriko Antzokian.

6 BARIKUA

18:00 Autodefentsa tailerra, emakumeentzat. Olaizaga kiroldegian.



BARREN

Jarri ezazu zure publizitatea **BARREN** astekarian
edo
www.barren.eus webgunean

☎ 943 743 704 / 943 744 112

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3 ezk. - 20870 ELGOIBAR



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-22:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
28 BARIXAKUA	29 ZAPATUA	1 DOMEKA	2 ASTELEHENA	3 MARTITZENA	4 EGUAZTENA	5 EGUENA	6 BARIXAKUA
Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Arriola
Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Arriola	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Arriola

* Fernandez:
Herriko enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gaez: 22:00-09:00
Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar)
943 206 984

Zinea (Herriko Antzokian)

'Jojo rabbit'

28 barikua: 21:30
29 zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)
1 domeka: 19:00
2 astelehena: 21:30



'Jumanji: Siguinte nivel'

1 domeka: 16:30



'Cholitas' (Ongarri zinekluba)

5 eguna: 21:30





colchoneria textil hogar

Etorri eta bisita gaitzazu,
kalitatezko enunak
topatuko dituzu!

MERKEALDIA

%25eko beherapena
Quality eta Kol etxeetako
nordikoetan

%45eko
beherapena umeen izara
eta ohe estalkietan

%40ko beherapena
manta eta izaretan

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



Saioa
Etxabe
Bergara,
8 urte,
Elgoibar

"Nire oporrak"



Alaitz
Pascual
Fernandez,
11 urte,
Elgoibar

"Hau da Lurrarekin pasatuko dena"






XIII. URTEURRENA

Ramon Untzilla Aranberri

2007ko otsailaren 27an hil zen, 42 urte zituela.

Maitasunez, beti gure bihotzetan.

Etxeoak




III. URTEURRENA

Jesus Maria Etura Echeverria

2017ko martxoaren 1ean hil zen, 89 urte zituela.
Haren oroimenez III. urteurreneko meza izango da,
zapatuan, otsailaren 29an, 19:00etan,
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

**Denborak samina arintzen omen du,
baina zure oroitzapen
goxoak ez du lausotuko.**

Sendia



Eskertzak eta urteurrenak 943 744 112

Aita Agirre Kulturgunean gaude, 3. solairuan



Etorri eta atek zabal-zabalik topatuko dituzue

Ordutegia: astelehenetik eguenera 9:00-17:30 / barikuetan: 9:00-14:30

Elgoibarko Izarra Euskaltzaleen Topagunea Elkarteak:

- Orokorra: 943 741 626 - elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus
- Barren komunikazioak: 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.eus
- Abuztiamaika Aisiakdi Taldea: 943 741 746 - abuztiamaika@elgoibarkoizarra.eus



Aita Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk.
26. Posta Kutxa
Elgoibar
www.elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

UDABERRIKO OPORRALDIA 2020

IDUIN KONTALARIA HH3 - LHI

Apirilak 7
17:00
Aita Agirre Kulturgunean
Doan

JOLAS GUNEA O-5 urte

Apirilak 16 eta 17
17:00-19:30
Aita Agirre Kulturgunean
Doan



ADAPAN HH2 Txiki-txokoak

Apirilak 6, 7, 8, 14, 15, 16 eta 17
Ordutegi mugua
9:00/10:00 - 12:00/13:00
Ludotekan
Plaza mugatuak

APARIKETAN HH3-HH4 Txokoak

Apirilak 6, 7, 8, 14, 15, 16 eta 17
9:00 - 13:00
Maialako parkean
Plaza mugatuak



txokoek kuota
1 Txanda: Apirilak 6-8: 40€ (basakideek, 36€)
2 Txanda: Apirilak 14-17: 52€ (basakideek, 47€)
Bi itandak: Apirilak 6, 7, 8, 14, 15, 16 eta 17: 84€ (basakideek, 76€)

FIRIN FARAN (HH5-LHI) Zulueta baserrira irteera

Apirilak 7
10:00 - 17:00
10:00etan Maialako parkean
Kuota: 6€ (basakideek, 5€)
Plaza mugatuak



Txori etxola tailerra

Apirilak 16 eta 17
17:00 - 19:00
Ludotekan
Kuota: 10€ (basakideek, 8€)
Plaza mugatuak



Txokoak

Apirilak 6, 7, 8, 14, 15, 16 eta 17
9:00 - 13:00
Maialako parkean
Plaza mugatuak

txokoek kuota
1 Txanda: Apirilak 6-8: 40€ (basakideek, 36€)
2 Txanda: Apirilak 14-17: 52€ (basakideek, 47€)
Bi itandak: Apirilak 6, 7, 8, 14, 15, 16 eta 17: 84€ (basakideek, 76€)

ABIXADAN (LH2-LH3) Akei baserrira irteera

Apirilak 8, 9:30 - 17:00
9:30etan Maialako parkean
Kuota: 6€ (basakideek, 5€)
Plaza mugatuak



Orion egonaldia

Apirilak 16 eta 17
Iteera: 16an, 9:00etan Maialako parkean
Itzulera: 17an, 18:15ean Maialako parkean
Orriko aterpetxea
Kuota: 30€ (basakideek, 27€)
Plaza mugatuak
ZOKKETA plazaek gairidituz gero



Txokoak

Apirilak 6, 7, 8, 14, 15, 16 eta 17
9:00 - 13:00
Maialako parkean
Plaza mugatuak

txokoek kuota
1 Txanda: Apirilak 6-8: 40€ (basakideek, 36€)
2 Txanda: Apirilak 14-17: 52€ (basakideek, 47€)
Bi itandak: Apirilak 6, 7, 8, 14, 15, 16 eta 17: 84€ (basakideek, 76€)

ALDENIK ALDEN (LH4-LH6) Baserrira irteera

Apirilak 6
9:30 - 17:30
9:30etan Maialako parkean
Kuota: 6€ (basakideek, 5€)
Plaza mugatuak



Zarautzen egonaldia

Apirilak 14tik 17ra
Iteera: 14an, 9:00etan Maialako parkean
Itzulera: 17an, 17:15ean Maialako parkean
Zarautzeko aterpetxea
Kuota: 104€ (basakideek, 94€)
Plaza mugatuak
ZOKKETA plazaek gairidituz gero



IZEN-EMATEA

Martxoak 2 - 15
• www.elgoibarkoizarra.eus
• Elgoibarko Izarraren bulegoan
• Ludotekan
Plaza mugatuak

UDALAREN DIRULAGUNTZAK

Ekoerak martxoaren 20a baino lehen egin behar dira, www.elgoibar.eus -en edo H.A.Z.en (Udalaren Herritarren Arreta Zerbitzuan):

- D5BE eta GLL loguntza jasotzen duten familiek kuotaren %70eko dirulaguntza jaso dezakete.
- Familia ugariet eta gurasa bakarrek familiek, seme-alaba bakoitzeko kuotaren %30eko dirulaguntza jaso dezakete.
- Bigarren seme-alaben izen ematea egiten dutenek, bigarren honen kuotaren %30eko dirulaguntza jaso dezakete.

INFORMAZIO GEHIAGO

Elgoibarko Izarra
Aita Agirre kulturgunea 3, 3. ezk
943 74 17 46
www.elgoibarkoizarra.eus
atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.eus

Elgoibarko Ludoteka
Gabriel Kurutzelaeg, 6
943 74 88 83
ludoteka@elgoibar.org